

BERTSOLARITZAREN HISTORIA: HEDABIDERATZEA, ERAGILETZA ETA PROIEKTUA (1823-2018) AHOTS SUBALTERNOAREN BIZI-INDARRAREN TESTIGANTZA BAT

Tesiaren egilea: Antxoka Agirre Maiora

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Kazetaritza II

Tesi-zuzendaria: Txema Ramirez de la Piscina Martinez eta Simon Peña Fernandez

Tesiaren laburpena:

Tesiak bertsolaritzaren historia mediatiko bat egiten du eta, horren osagarri gisa, garaian garaiko testuinguruari eta eragileen proiektu kulturalari erreparatzen zaie, bertsolaritzaren historia sozial oso bat jorratzeraino.

Gaiari buruzko bibliografiaz gain, prentsa historikoan bertsolaritzari eskainitako testuak aztertu eta baliatu dira kontakizun hau gauzatu ahal izateko. Zentzu horetan, prentsa historikoko bertsolaritzaren inguruko 4.159 testuren bilketa bera ekarpen garrantzitsu bat litzateke.

Historia seriala eta elkarrizketa sakonak erabili dira metodologia kuantitatibo zein kualitatibo nagusi gisa, eta kontakizuna lau ziklo handitan artikulatu da: Lore-Jokoak, Euzko Pizkundera, Frankismo Garaia eta Garaikidea.

Ahalegin berezi bat egin da ziklo horietako bakoitza testuinguru zabal batean kokatzeko, alegia, garaian garaiko euskal kulturagintzak Lehen Modernitatean eta Beranduko Modernitatean kulturak Europan izandako erronkei nola erantzun dien ikusteko. Bestalde, ziklo bakoitzean fenomenoak izandako hedabideratzearen eta bertsolaritzaren inguruko proiektuaren ezaugarri nagusiak azpimarratu nahi izan dira.

Errepaso honek azalpen historiko bat ematen dio euskal kultur sistemaren singularitasun nagusietako bati, bertsolaritza bezalako ahozko fenomeno batek izan duen garapen eta garrantzi ezohikoari. Horrela, subalternitatearekin lotura duten hainbat gako seinalatzen dira: euskal kulturagintza modernoaren lehen pausoetan, XIX. mendean, kultura idatzia garatzeko izandako ezintasunek ekarri zuten fokua ahozkoan jartzea, edota euskararena bezalako komunitate ertzekotuak bertsolaria bezalako ertzeko figura nortasun ikur gisa hartu izanak indar handia eman zion hautu honi. Era berean, azken hamarkadetan bizi izandako loraldia bi mendetan zehar moldatzen eta aberasten joan den proiektuaren jarraitutasuna hainbat berrikuntzarekin uztartzetik gertatu dela ikus daiteke.

Azkenik, lanak kulturgileen belaunaldi ezberdinek burututako lanaren meritua bistaratzeko du. Batetik, etorkizuna kultura idatziarekin lotzen zuen diskurtso hegemonikoaren aurka ahozkoaren aldeko apustuari eusteko gaitasuna izan zutela erakusten duelako, eta, bestetik, fenomenoaren modernitatearen estadio ezberdinetara egokitzeko eman beharreko pauso guztiak ematen asmatu zutela ikus daitekeelako.

Tesiaren azpititulua dioen modura, ertzekotuaren biziraupen-istorio bat eskaintzen da, bada, errebaso bibliografiko xehea eginez, azterketa kuantitatibo zabal batean oinarritutako datuak eskainiz, prentsa historikoan topatutako harribitxiak tartekatuz eta euskal kulturaren bilakaera testuinguru zabalagoetan gertatutakoarekin harremanetan jarriz.